

6 mantangorri

CO

AZOKA

## MAHAI JOKOAK

**Izenburuak:** 'Karta-jolasa', 'Bikotekartak' eta partxisa eta Zazpikoloroaren jolasa. **Egilea:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots. **Ilustrazioak:** Julen Tokero. **Edukia:** Zazpikoloroaren jolasera eta partxisera jokatzeko taula bat; bikote jokorako karta sorta bat eta karta sorta arrunt bat. **Argitaratzailea:** Katxiporreta.



## Joxe Mari Agirretxe

PORROTX PAILAZOA

«Saiatzen gara astialdian euskal izaera duen jolasik izan dadin»

Partxisa, oka jokoak eta karta sortak ez dira joko berriak, inondik ere. Katxiporreta pailazo taldeak argitaratu berri dituen jokoak, baina, badute berezi egin dituen ezaugarri bat: Pirritx, Porrotx, Marimotots eta euren lagun taldea dira protagonistak. Eta jokoak Euskal Herrian bertan eginak dira. Euskal Herrian Euskal Herrirako eginak.

### Joko sorta berri bat argitaratu duzue. Zergatik?

Gure xede nagusia pailazogintza da: pailazo ikuskizunak sustatzea eta Euskal Herriko haur eta helduei eskaintza. Azken urteetan balio heitztaileak ere gehitu zaizkio gure lanari. Hala, herriko ikuskizunak eskaintzeaz gain, beste bide batzuk ere jorratu ditugu: ikus-entzunezkoak, ipuinçintza... Guztiek balio dute gure lantalean ditugun helburuak pla-

zaratu eta zabaltzeko: euskaraz eta alaitasunez hainbat balio jorratzea eta transmititzea, alegia.

Jolasen eremua ere jorratzen dugu. Saiatu gara astialdian edo jolasen esparruan euskal izaera edo nortasuna duten pertsonaien eta haien izaera eta istorioekin loturiko jolasik izan dadin, horrek bermatuko duelako euskaraz jolastea. Orain arte, puzzleak argitaratu izan ditugu, eta, orain, beste jolas sorta bat prestatu dugu.

### Berriro argitaratu duzue partxisa.

Aurrez ere argitaratu genuen partxisa, baina, orain, berritu egin dugu; irudi berriak sartu ditugu. Partxisaren atzean, berri, Zazpikoloroaren jokoan aritzeko taula prestatu dugu. Okaren jolasaren parekoa da Zazpikoloroa. Gure jo-

koaren kasuan, ordea, okatik okara jauzi egin beharrean, zazpikolorotik zazpikolorora salto egindó dute jokalariek. Zazpikoloroarekin batera, pailazoen irudiak eta gurekin zerikusia izan duten pertsonaiak eta egoerak agertzen dira. Hala bada, gurera moldatu eta ekarri dugu joko ezauguna.

### Bi karta joko ere argitaratu dituzue.

Bai, hala da. Bikote jolasean aritzeko karta sortak memoria lantzko balio du. Sortarekin batera, jolaserako arauak daude. Gutxienez, bi modutara jolas daiteke: karta guztiak banatu, eta jokalariek, txanda, elkarri kartak eskatzen aritu beharko dute, bikoteak osatzeko. Bestela, mahaian karta guztiak buruz behera jarri, eta binaka altzatuz joan beharko da, bikoteak osatzuz. Inori beste jolasteko moduren

bat bururatzen bazaio, aurrera! Guk proposamen bat egiten dugu; ondoren, jokalariak erabakiko du nola jolastu. Bestea ohiko karta sorta da.

### Karta sorta ohikoa da, bai, baina ez da betikoa.

Ez, ez da betikoa: itxuraz ez, behintzat. Karta sorten estetika geurera ekarri dugu, eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta euskal ikurrik dira protagonista. Hala, erregearen ordez Porrotx agertzen da, pixontzia buruan due-la; Marimotots, berriz, asto gainean jarri dugu eta Pirritx, txota gisa. Urrearen ordez, gure eguzkia jarri dugu; kopen ordez, kaikuak daude; ezpatak, piraten ezpatak dira; eta bastoien ordez, haritz hostoak jarri ditugu.

### Euskal izaera duten jolasak eta bertan eginak.

Bai, guk sortu ditugu, eta Euskal Herrian egin ditugu guztiak. Ohi bezala, Julen Tokero egin ditu marraskiak. Karta sortak Hernaniko enpresa batean inprimatu ditugu. Partxisa eta Zazpikoloroaren jokoak dakarren taula, berriz, hainbat enpresaren arteko lana izan da. Izan ere, guk dakigula, Euskal Herrian ez da go partxis taulak egiten dituen enpresarik. Hala, irudia Tokeroak desinatu du, Hernaniko inprenta batean inprimatu dugu, jokorako taula eta ertzak arotz batek egin dizki, eta guztia muntatzeaz beste euskal enpresa bat arduratu da. Zatika egin dugu, baina guztia hemen egina da. Gure asmoa, erronka eta ardura da hemengo nortasuna duten produktuak ateratzea eta, ahal den heinean, Euskal Herrian bertan egitea.

